



## **Komunikazio-irtenbide integratuak eskainiko dizkie Euskaltelek ADEGI, CEBEK eta SEAKo enpresei lehiakortasuna hobetzeko**

- ***Oraintsu berritu du Euskaltelek EAeko hiru enpresari-konfederazioekiko hitzarmena, partaide dituzten enpresen lehiakortasuna hobetzeko sortua.***
- ***Komunikazio-zerbitzu eta -soluzio integratuak emango dizkie Euskaltelek elkarte horietako enpresei, eta abantaila ekonomikoak eta baldintza oso onak eskainiko.***
- ***ADEGI, CEBEK eta SEAKo presidentek ziurtatu dutenez, hitzarmenak indartu egiten du elkarte horien helburua, hots, bazkide dituzten enpresen interesak defendatzea eta nork bere lurraldearen garapen ekonomiko eta sozialari ekarpena egitea.***

Bilbon, 2016ko abenduaren 15ean. Euskaltelek berritu egin du ADEGI, CEBEK eta SEA enpresarien hiru euskal konfederazioekiko konpromisoa, hau da, elkarteetako kide diren enpresen lehiakortasuna hobetzeko telekomunikazio-zerbitzu aurreratuak ematea, kudeaketarako laguntza teknikoa eskaintzea eta kostuen eraginkortasuna bultzatzea.

ADEGIko, CEBEKeko eta SEAKo presidentek –Pello Guibelalde, Iñaki Garcinuño eta Pascal Gómez, hurrenez hurren– sinatu dute lankidetzeta-hitzarmena, gaur goizean, Euskaltelen egoitzan. Hitzarmen horri esker, oso baldintzak onak eskain diezazkiekete erakunde horiek euren enpresei telekomunikazio-kostuak nabarmen hobetu eta lehiakortasuna areagotu dezaten.

*“Hitzarmen honi esker, telekomunikazio-zerbitzurik aurreratuenak izango ditugu eta, horien bidez, kudeaketa hobetzen eta eraginkorrago izaten lagunduko diegu –laguntzen diegu jada– enpresa handiei zein txikiei”, adierazi dute.*

ADEGIko zuzendari nagusia, José Miguel Ayerza, eta CEBEKeko eta SEAKo idazkari nagusiak, Francisco Javier Aspiazu eta Juan Ugarte, sinadura-ekitaldi ofizialean izan dira.

Lankidetzeta-esparru horretan, zenbait ekintza aurreikusten dira Informazio eta Komunikazio Teknologiak euskal enpresetan txertatzeko. Euskaltelek aholkulari-lana egingo du enpresa-erakundeekin, eta komunikazio-irtenbide integratuak eskainiko dizkie, enpresariei beren eguneroko kudeaketan sortzen zaizkien gailu finko eta mugikorren erabilera-beharrei erantzuteko.

Euskaltelen ordezkari gisara Alberto García Erauzkin presidenteak, Francisco Arteche kontseilari delegatuak eta Francisco Javier Allende idazkari nagusiak adierazi dutenez, *"azken 12 urteotan berritu den lankidetzaren hitzarmen honek erakusten du konpainiak zernolako konpromisoa duen Euskadiren garapen teknologiko eta sozialarekin eta zer garrantzitsuak diren IKTak enpresen produktibitate eta lehiakortasunean"*.

---

**Euskaltel – Komunikazioa**  
**94-4011229**  
**komunikazioa@euskaltel.com**